

FORU DEKRETUA, Bizkaiko Ahaldu Nagusiarena, zeinaren bidez zuzeneko dirulaguntza bat ematen baitzaio Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin elkarteari INNPow 2026: Copenhagen-Bizkaia proiektuaren garapena sustatzeko.

DECRETO FORAL de la Diputada General de Bizkaia por el que se concede una subvención directa a la Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin para promover el desarrollo del proyecto INNPow 2026: Copenhagen-Bizkaia.

Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz beharrezkoa da, enpresa-elkarteekin eta Bizkaiko enpresekin batera, pertsonengan, konfiantzan, konpromisoan, parte-hartzean eta enpresa-jasangarritasunean oinarritzen den enpresa-estilo berria sortzeko hasitako eraldaketa-prozesuan aurrera egitea. Emakumeen eta gizonen berdintasuna enpresen lehiakortasunerako funtsezko faktorea dela eta gizarte berdinzaleagoa eraikitzeko ezinbestekoa elementua dela sinetsita, Ekonomia Sustatzeko Sailak emakumeen ekintzaila eta gizarte-ikusgarritasuna sustatzeko jarduketak bultzatzen eta garatzen ditu. Beharrezkoa da emakumeek enpresan duten presentziari balioa ematea, ekonomiari eta aberastasuna sortzeari egiten dioten ekarpenari balioa ematea, zientzian eta teknologian emakumeek duten presentzia eta ekarpena ikusaraztea, emakumeen presentzia publikoa sustatzea, eta emakumeen erreferenteak sortzea ekonomia-, teknologia- eta ikerketa-eremuetan. Era berean, derrigorrezkoa da emakume enpresarien, ekintzaileen eta zuzendarien artean lankidetzaren sorkuntza sustatzea.

La Diputación Foral de Bizkaia considera necesario avanzar, junto a las asociaciones empresariales y las empresas de Bizkaia, en el proceso de transformación ya iniciado para generar un nuevo estilo de empresa basado en las personas, la confianza, el compromiso, la participación y la sostenibilidad empresarial. Desde el convencimiento de que la igualdad de mujeres y hombres es un factor de competitividad fundamental de las empresas y un elemento imprescindible para la construcción de una sociedad más igualitaria, el Departamento de Promoción Económica promueve y desarrolla actuaciones orientadas a impulsar el emprendimiento femenino y su visibilización social. Es necesario poner en valor la presencia de las mujeres en la empresa y su contribución a la economía y a la generación de riqueza, visibilizar su presencia y contribución en la ciencia y la tecnología, promover la presencia pública de las mujeres y la generación de referentes femeninos en los ámbitos económicos, tecnológicos y de investigación y potenciar la generación de redes de colaboración entre mujeres empresarias, emprendedoras y directivas.





Asociación para la promoción y el desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin elkarteak 2013an sortu zen, ekintzailetzaren esparruan gertatzen diren egiturazko desberdintasunei erantzuteko. Eredu androzentrikoak nagusi diren enpresa-kulturaren ezaugarriak emakumeen ikusgarritasunik eza, erreferenterik eza eta/edo finantzaketa, sareak edo prestakuntza egokituak eskuratzeko desberdintasuna dira. Errealitate hori aintzat hartuta Emakumeekin Elkartearen ardatza emakumeen ahalduntze ekonomikoan, laguntza-sareen eraikuntzan eta enpresa-eredu jasangarriagoak, kooperatiboagoak eta liderren balioekin bat datozen programak garatzea da.

Programa horietako bat INNPowerr 2026: Copenhagen-Bizkaia proiektua da, balio pertsonalei uko egin gabe euren negozioen jasangarritasuna eta hazkundea bultzatu nahi duten emakume ekintzaileei zuzenduta dagoena. Ahalduntzeko eta berritzeko programa bat da, eta bere helburu nagusia da Bizkaian emakumeek gidatutako ekintzailetza bultzatzea, eraldaketa ekonomiko eta sozialaren eragile gisa.

INNPowerr 2026: Copenhagen-Bizkaia proiektua saio intentsibotan gauzatzen da, emakume atzeritarren parte-hartzearekin. Saio hauek emakumeek gidatutako ekintzailetzari buruzko ikuspegia eta esperientzia eskainiko dute, bai eta parte-hartzera irekitako workshop bat ere. Proiektuaren helburua parte-hartzaileek euren trebetasunak garatzea da (enpatia, lankidetzak-espirtua, entzutea...), prozesutik eta emaitzatik ikastea, etorkizunean euren kabuz aplikatu ahal izan dezaten, eta ahalduntzea lantzea, euren gaitasun berritzaileak erabiliz, guztiek duten sormen-eta lidergo-potentzial handiaren ondorioz.

La Asociación para la promoción y el desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin se fundó en 2013 para dar respuesta a las desigualdades estructurales existentes en el ámbito del emprendimiento. La falta de visibilidad de las mujeres, la ausencia de referentes y/o la desigualdad en el acceso a la financiación, a las redes o a una formación adaptada son características de una cultura empresarial dominada por modelos androcéntricos. Ante esta realidad, Emakumeekin pone en marcha programas centrados en el empoderamiento económico de las mujeres, en la construcción de redes de apoyo y en el desarrollo de modelos empresariales más sostenibles, cooperativos y alineados con los valores de quienes los lideran.

Uno de estos programas es el proyecto INNPowerr 2026: Copenhagen-Bizkaia dirigido a mujeres emprendedoras que quieran impulsar la sostenibilidad y el crecimiento de sus negocios sin renunciar a sus valores personales. Es un programa de empoderamiento e innovación cuyo objetivo principal es impulsar el emprendimiento liderado por mujeres en Bizkaia como motor de transformación económica y social.

El proyecto INNPowerr 2026: Copenhagen-Bizkaia se materializa en la celebración de sesiones intensivas que contarán con la participación de mujeres extranjeras que aportarán su visión y experiencia sobre el emprendimiento liderado por mujeres seguido de un workshop abierto a la participación. El proyecto tiene como objetivo que las participantes desarrollen sus habilidades (empatía, espíritu colaborativo, escucha...), que aprendan del proceso y del resultado para que puedan aplicarlo por sí mismas en el futuro y que trabajen el empoderamiento utilizando sus propias habilidades innovadoras fruto del gran potencial creativo y de liderazgo que todas tienen.





Beraz, bat Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin elkartearen helburuak eta interesak, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailarenak ere, emakumeen ekintzailtza sustatzeari dagokionez, hori sustatzen eta indartzen duten eta haien gizarte-ikusgarritasuna sustatzen eta laguntzen duten jarduerak eginez. Hori dela eta, Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren maiatzaren 5eko 3374/2026 Foru Aginduaren bidez, Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin elkarteari INNPow 2026: Copenhagen-Bizkaia proiektuaren garapena bultzatzeko zuzeneko dirulaguntza emateko prozedura ofizios hasia erabaki zen, bere ekimenez.

Existe, por tanto, una coincidencia entre los objetivos e intereses de la Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin y los del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia en impulsar el emprendimiento de las mujeres realizando actuaciones que lo promuevan y fortalezcan y contribuyan a su visibilización social. Por este motivo, mediante la Orden Foral 3374/2026, de 5 de mayo de la diputada foral del Departamento de Promoción Económica, se acordó iniciar de oficio, por propia iniciativa, el procedimiento para la concesión de una subvención directa a la Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin para el impulsar el desarrollo del proyecto INNPow 2026: Copenhagen-Bizkaia.

2026ko maiatzaren 15ean, Emakumeekin elkarrekin dirulaguntza-eskabide bat aurkeztu zion Bizkaiko Foru Aldundiari, INNPow 2026: Copenhagen-Bizkaia proiektua gauzatzeko. Eskabidea erantsi da, egingo den jardueraren deskribapena, helburuak eta epeak jasota. Proiektu honetan aurreikusitako jarduketak 2026ko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egingo dira, eta jarduketaren guztizko kostu zenbatetsia 19.360,00 euro izango da. Bizkaiko Foru Aldundiari 19.000,00 euroko dirulaguntza eskatu zaio.

El día 15 de mayo de 2026, Emakumeekin ha presentado una solicitud de subvención a la Diputación Foral de Bizkaia para realizar el proyecto INNPow 2026: Copenhagen-Bizkaia. Se adjunta la solicitud que incorpora la descripción de la actividad a realizar, sus objetivos y sus plazos. Las actuaciones previstas en este proyecto se desarrollarán desde el 1 de enero al 31 diciembre de 2026 siendo el coste total estimado de la actuación de 19.360,00 euros, solicitando a la Diputación Foral de Bizkaia una subvención de 19.000,00 euros.

Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arau Orokorraren 7. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, foru-dirulaguntza publikoek, oro har, genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala jaso behar dituzte, bai eta berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak ere, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa betetze aldera.

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 7 de la Norma Foral 5/2005, general de subvenciones, las subvenciones públicas forales, con carácter general, deben incorporar la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, así como incorporar medidas para promover la igualdad y eliminar desigualdades entre mujeres y hombres con el fin de dar cumplimiento al principio de igualdad de mujeres y hombres.





Bizkaiko Foru Aldundia lanean ari da Bizkaiko pertsona guztiek beren potentzial guztia garatu ahal izan dezaten, lurraldearen aberastasuna eta ongizatea sortzen laguntzeko. 4/2018 Foru Arauak, ekainaren 20koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, hainbat neurri ezartzen ditu berdintasun hori sustatzeko eta bermatzeko, emakumeen autonomia sustatzeko eta haien posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko, eta diskriminazio eta desberdintasun mota guztiak desagerrarazteko. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Foru Planak Bizkaiko Foru Aldundiaren 2025-2029 aldirako berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko esparru estrategikoa eskaintzen du, eta tresna nagusia da generoagatik emakumeei estrukturalki eragiten dieten desberdintasunak eta diskriminazioak desagerrarazteko eta gizarte demokratikoagoa, berdintasunezkoagoa, bidezkoagoa, jasangarriagoa eta indarkeria matxistarik gabea lortzeko.

Beste alde batetik, Emakumeekin elkarteak hasiera-hasieratik ekintzailtzaren ikuspegi feministarekin lanean ari da, emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunak esparru ekonomikora ere iristen direla uste duelako. Hori dela eta, programa guztiek zeharka txertatzen dute genero-ikuspegia, edukietan zein metodologian, eta emakumeen enpresa-gaitasunak indartzea ez ezik, Bizkaiko ekosistema ekintzailea emakumeek nola erabiltzen duten, nola irauten duten eta nola gidatzen duten egiturazko aldatzen laguntzea ere bilatzen dute.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan honako dauk daude jasota: 02. helburu estrategikoa: “Bizkaia, talentuaren aldeko konpromisoa”, 02.02 helburu espezifikoan, “Bizkaian ekintzailtza sustatzea eta enpresak sortu eta finkatzeko laguntza ematea”, 02.02.01 ekintza “Emakumeen ekintzailtza eta enpresa sarean emakumeen presentzia sustatzea”, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren

La Diputación Foral de Bizkaia trabaja para que todas las personas de Bizkaia puedan desarrollar todo su potencial para contribuir a la creación de riqueza y bienestar del Territorio. La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece un conjunto de medidas para promover y garantizar dicha igualdad, promover la autonomía de las mujeres y fortalecer su posición social, económica y política y erradicar todas las formas de discriminación y desigualdad. El VII Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia para el periodo 2025-2029, configurándose como su principal instrumento para erradicar las desigualdades y discriminaciones que afectan estructuralmente a las mujeres por razón de género y avanzar hacia una sociedad más democrática, igualitaria, justa, sostenible y libre de violencias machistas.

Por su parte, Emakumeekin trabaja desde sus inicios con una perspectiva feminista del emprendimiento, entendiendo que las desigualdades estructurales entre mujeres y hombres alcanzan también el ámbito económico. Por ello, todos sus programas integran la perspectiva de género de forma transversal, tanto en contenidos como en la metodología, y pretenden no sólo fortalecer las competencias empresariales de las mujeres sino contribuir a un cambio estructural en el modo en el que las mujeres acceden, permanecen y lideran el ecosistema emprendedor de Bizkaia.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Departamento de Promoción Económica prevé dentro del objetivo estratégico 02 “Bizkaia, compromiso por el talento”, en el objetivo específico 02.02 “Impulsar el emprendimiento y apoyar la creación y consolidación de empresas en Bizkaia”, la acción 02.02.01 “Impulso del emprendimiento de mujeres y su presencia en el tejido empresarial”, y en los Presupuestos





Aurrekontu Orokorretan, urtero, horiek gauzatzeko behar diren kredituak esleitzen dira. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea.

Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2c) artikulua aurreikusten du, salbuespen gisa, zuzenean eman ahal izango direla interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arazoak egiaztatzen dituzten beste dirulaguntza batzuk, edo deialdi publikoa zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste batzuk.

Foru Dekretu honen xedea da Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin elkartearen aldeko zuzeneko dirulaguntza bideratzea 2026ko ekitaldian zuzkidura 19.000,00 eurokoa izanik, eta entitate onuradunak bere gain hartu behar dituen baldintzak eta konpromisoak ezartzea.

Interes orokorreko proiektu estrategikoa da, baldintzak hobetzeko egiturazko beharrari erantzuten diona emakumeek Bizkaian euren negozioei ekin, eutsi eta hazteko aukera izan dezaten. Hala ere, ez da jarduera ekonomikoa berez, eta ez du eraginik erkidego barruko merkataritzan. Hori dela eta, dirulaguntza hau ezin da Estatuaren laguntzat hartu, Batzordeak Estatuaren laguntzaren kontzeptuari buruz egindako Komunikazioak ezartzen duenaren arabera, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (2016/C262/01) 107. artikulua 1. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Foru Dekretu honen prestaketan, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlas efectivas, a cuyo efecto se hace necesario establecer su normativa reguladora.

El artículo 20.2 c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, prevé la posibilidad de conceder de forma directa, con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

La finalidad de este Decreto Foral es canalizar la subvención directa a favor de la Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin, siendo el importe de la dotación de 19.000,00 euros en el ejercicio 2026, así como establecer las condiciones y compromisos que asume la entidad beneficiaria.

Se trata de un proyecto estratégico de interés general que da respuesta a la necesidad estructural de mejorar las condiciones para que las mujeres puedan emprender, sostener y hacer crecer sus negocios en Bizkaia. No obstante, no se trata de una actividad económica propiamente dicha ni tiene efectos en el comercio intracomunitario, por lo que esta subvención no puede considerarse una ayuda de Estado, en los términos que establece la Comunicación de la Comisión relativa al concepto de ayuda estatal conforme a lo dispuesto en el artículo 107, apartado 1, del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (2016/C262/01).

En la elaboración de este Decreto Foral se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.





Ebazpen honen xede den gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Hautaketari, Antolamenduari, Erregimenari eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1 d) artikulua modu koordinatuan irakurriz gero ondoriozta daitekeenez. Artikulu horretan ezartzen da aldundien berezko eskumena dela garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaz, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenen arabera.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 61/2024 Foru Dekretuak, 1. artikuluan, sail honi esleitzen dio, beste jardun-arlo batzuen artean, enpresa-sustapenarekin, enpresa berrien sorrerarekin eta kultura ekintzailea sustatzearekin, enpresen dibertsifikazioarekin eta gorabidean dauden eta hazten ari diren sektoreak sendotzearekin eta talentua eta ezagutza erakarri eta sustatzearekin zerikusia duten jarduerak guztiak bultzatzea eta garatzea.

2026ko aurrekontu-ekitaldiari dagozkion Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan, zuzeneko dirulaguntza hau emateak dakarren gastuari aurre egiteko beharrezkoa den diru-izendapena dago, zehazki 0803/426106/45100 aurrekontu-programan, 2017/0068 aurrekontu-proiektuan, “Emakumeek gidatutako ekintzailatza” izenekoan.

Horrenbestez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 26.2. artikuluan, 20.2. artikuluari lotuta, xedatutakoa dela bidez, egokitzen da zuzeneko emakidaren bidez laguntza berezi bat ematea.

La competencia sobre la materia objeto de esta resolución corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1 d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local donde se establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social, de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

El Decreto Foral 61/2024, de la Diputación Foral de Bizkaia, de 6 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, en cuyo artículo 1 atribuye a este departamento, entre otras áreas de actuación, la del impulso y desarrollo de todas las actividades que tengan relación con la promoción empresarial, la creación de nuevas empresas y la promoción de la cultura emprendedora, la diversificación empresarial y la consolidación de sectores emergentes y en crecimiento y la atracción y promoción del talento y el conocimiento.

En los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia correspondientes al ejercicio presupuestario 2026, existe la necesaria consignación para hacer frente al gasto que representa la concesión de la presente subvención directa, concretamente en el programa presupuestario 0803/426106/45100 proyecto presupuestario 2017/0068 “Emprendimiento liderado por mujeres”.

Por todo ello, en virtud de lo dispuesto por el artículo 26.2 en relación al 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, procede la concesión de una ayuda singular mediante el procedimiento de concesión directa.





Aurrekoarekin bat, honako hauek osatuko dute zuzeneko diru-laguntza honi aplikatu behar zaion araubide juridikoa: Dekretu honetan jasotako xedapenek, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2008 Legean jasotako manuek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, eta aurreko testu horiek guztiak garatzen dituzten arauzko xedapenek.

Consecuentemente con lo anterior, el régimen jurídico aplicable a la presente subvención directa estará constituido, además de por las disposiciones recogidas en el presente Decreto, por las prescripciones contenidas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y por las disposiciones de carácter reglamentario que desarrollan los textos anteriormente citados.

Bestalde, abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuak, Aurrekontuen Erregelamendu Orokorrari buruzkoak, Bizkaiko Foru Aldundiko organoek dirulaguntzak edo laguntzak emateko dituzten eskumenen mugak zehazten dituenak, bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, diputatu nagusiari dagokio 320.000,00 eurotik beherako dirulaguntzak ebatzea. Muga hori bat dator Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoarekin.

Por otro lado, de acuerdo con lo establecido en la Disposición Adicional Segunda del Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, de Reglamento General Presupuestario, por la que se determinan los límites competenciales, por razón de la cuantía, de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia para concesión de subvenciones o ayudas, corresponde a la Diputada General la resolución de aquellas subvenciones que no superen los 320.000,00 euros. Dicho límite está en consonancia con lo dispuesto en el artículo 12 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, que aprueba el Reglamento de Subvenciones.

Horregatik guztiagatik, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 9.2. artikuluan eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Foru Arautegiaren 12. artikuluan ezarritakoa dela bide, ondoko proposamen hau jarri da Bizkaiko Foru Aldundiaren Ahaldun Nagusiaren onespeneraren menpe

Por todo ello, en virtud de lo establecido en el artículo 9.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el artículo 12 del Reglamento Foral de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, se somete a la aprobación de la Diputada General de la Diputación Foral de Bizkaia la siguiente propuesta de





DEKRETUA

Lehena.- Foru Dekretuaren xedea

1.- Dekretu honen xedea da Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin elkarteari (IFZ: G95713269) 19.000,00 euroko zuzeneko dirulaguntza ematea, INNPow 2026: Copenhagen-Bizkaia proiektua gauza dadin sustatzeko. Dirulaguntza emateko baldintzak eta konpromisoak ezarriko dira.

2. Proiektuaren helburu nagusia Bizkaian emakumeek gidatutako ekintzailetza bultzatzea da, eraldaketa ekonomiko eta sozialaren eragile gisa, emakume horien gaitasunak eredu jasangarriagoak, inklusiboagoak eta beren balioekin bat datozenak erabiliz indartuz. Bultzada berri bat bilatzen duten negozio jasangarriak dituzten emakume ekintzaileen berrikuntza-trebetasunak sustatzeko diseinatutako esperientzia da. Programa esperientzia-ikaskuntzarako espazio bat sortzean oinarritzen da, non lehen mailako hizlarien inspirazioa metodologia berrien aplikazio praktikoarekin konbinatzen den.

Bereziki proiektua gauzatzearen xedek honako hauek dira:

1. Balioekin lerrokatutako ekintzailetza- eta lidergo-gaitasunak garatzea.
2. Emakumeek sustatutako negozioen jasangarritasun ekonomikoari laguntzea.
3. Taldeko ikaskuntzarako eta esperientziak trukatzeko espazioak sortzea.
4. Eragin ekonomiko eta soziala duten enpresa egiteko modu berritzaileak ikusaraztea.
5. Bizkaiko emakume ekintzaileen arteko sare profesionala eta kolaboratiboa indartzea.

DECRETO

Primero.- Objeto del Decreto Foral

1. Este Decreto tiene por objeto conceder a la Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin, con NIF G95713269, una subvención directa por importe de 19.000,00 euros, para promover la ejecución del proyecto INNPow 2026: Copenhagen-Bizkaia, estableciendo las condiciones y compromisos asociados a su concesión.

2. El objetivo principal del proyecto es impulsar el emprendimiento liderado por mujeres en Bizkaia, como motor de transformación económica y social, fortaleciendo sus capacidades con modelos más sostenibles, inclusivos y alineados con sus valores. Es una experiencia diseñada para potenciar las habilidades de innovación de mujeres emprendedoras con negocios sostenibles que buscan un nuevo impulso. El programa se centra en crear un espacio de aprendizaje experiencial, donde se combinan la inspiración de ponentes de primer nivel con la aplicación práctica de nuevas metodologías.

En particular, la realización del proyecto pretende:

- 1º Desarrollar competencias emprendedoras y de liderazgo alineadas con los valores.
- 2º Contribuir a la sostenibilidad económica de los negocios impulsados por mujeres.
- 3º Generar espacios de aprendizaje colectivo e intercambio de experiencias.
- 4º Visibilizar formas innovadoras de hacer empresa con impacto económico y social.
- 5º Reforzar la red profesional y colaborativa entre mujeres emprendedoras de Bizkaia.





6. Ekintzailetzan berrikuntza sustatzea, ikuspegi feministatik eta eraldatzailerik.

6º Promover la innovación en el emprendimiento desde una perspectiva feminista y transformadora.

Helburu hauek lortzeko, Emakumeekin elkarrekin hainbat metodologia erabiltzen ditu:

Para lograr estos objetivos Emakumeekin emplea diferentes metodologías:

1. Learning by doing: esperientzia-ikaskuntza, bizipen-dinamiken bidez.

1ª Learning by doing: aprendizaje experiencial a través de dinámicas vivenciales.

2. Lidergo berritzaileari eta autoezagutzari buruzko lana, enpresa egiteko moduan benetako aldaketak errazteko eta bideratzeko.

2ª Trabajo sobre liderazgo innovador y autoconocimiento para facilitar cambios reales en la forma de hacer empresa.

3. Inspirazio-eragile gisa jarduten duten nazioarteko erreferenteen parte-hartzea.

3ª Participación de referentes internacionales que actúan como detonantes de inspiración.

4. Barneratzea eta tokiko aplikazioa egiteko tailer praktikoa, adituen laguntzarekin.

4ª Taller práctico de interiorización y aplicación local, con acompañamiento experto.

Bere aldetik, Bizkaiko Foru Aldundiak enpresetan eta erakundeetan emakumeen zeregina indartzearen aldeko apustua egin du, batez ere erantzukizuneko postuetan, horretarako behar diren laguntza guztiak eskainiz eta emakume ekintzaileek Bizkaiko garapen ekonomikoari egiten dioten ekarpena aintzatetsiz. Horregatik bereziki beharrezkoak dira INNPow 2026: Copenhagen-Bizkaia proiektuaren modukoak, Bizkaia-erantzukizunaren inbertsio estrategikoa direlako egiturazko desberdintasunak murriztuz, enpresa-ehuna dibertsifikatuz eta ekonomia inklusiboagoa eta erresilienteagoa lortzen lagunduz.

Por su parte, la Diputación Foral de Bizkaia apuesta por reforzar el papel de las mujeres en las empresas y organizaciones, sobre todo en puestos de responsabilidad, ofreciendo todos los apoyos necesarios para ello y reconociendo el valor que las mujeres emprendedoras aportan al desarrollo económico de Bizkaia. Por ello, considera especialmente necesarios los proyectos que como INNPow 2026: Copenhagen-Bizkaia suponen una inversión estratégica para Bizkaia, reduciendo desigualdades estructurales, diversificando el tejido empresarial y contribuyendo a una economía más inclusiva y resiliente.

Azaldutako guztiak egiaztatzen du proiektu hau gauzatzeak dakarren interes publikoa, ekonomikoa eta soziala, eta justifikatzen du dirulaguntza zuzenean ematea eta deialdi publikorik ez erabiltzea planteatzen diren helburuak lortzeko. Foru Dekretu honekin batera doa 34/2010 Foru Dekretuaren 52.3 artikuluan aurreikusitako Enpresa Sustatzeko Zerbitzuaren txostena, dirulaguntzaren izaera berezia, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak edo

Todo lo expuesto acredita el interés público, económico y social que representa la ejecución de este proyecto y justifica la concesión de manera directa de la subvención y la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean. Acompaña a este Decreto Foral Informe del Servicio de Promoción Empresarial previsto del artículo 52.3 del Decreto Foral 34/2010, justificativo del carácter singular de la subvención, de las razones que acreditan el





Asociación para la promoción y el desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin elkarteari INNPower 2026 proiektua garatzeko zuzeneko dirulaguntza emateko deialdia egitea zaila dela justifikatzen duten beste arrazoi batzuk justifikatzen dituen.

3. Dirulaguntza honen xedea ez da sexuagatik edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatik diskriminazioa eragiten duen jardura.

4. Dirulaguntza honen xedea ez da tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan arau-haustetzat jotako jardunbideei aurre egiten dien, eragiten dien edo horiek onartzen dituen jardura edo helburua betetzea.

interés público, social, económico o humanitario, u otras que justifiquen la dificultad de su convocatoria en relación a la subvención directa a la Asociación para la promoción y el desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin para el desarrollo del proyecto INNPower 2026.

3. El objeto de esta subvención no constituye actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

4. El objeto de esta subvención no constituye actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y no discriminación.

Bigarrena.- Erakunde onuraduna

1. Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin, (IFZ: G95713269) da dirulaguntza honen erakunde onuraduna, eta egunean ditu zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharrak.

2 Asociación para la promoción y el desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin ez dago Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako egoeraren batean, eta Foru Arau horren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak guztiak bete behar ditu.

Segundo.- Entidad beneficiaria

1. La Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin, con NIF G95713269, es la entidad beneficiaria de esta subvención y se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

2. La Asociación para la promoción y desarrollo del emprendimiento de mujeres Emakumeekin no se encuentra incurso en ninguna de las circunstancias establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.





3. Dirulaguntzaren erakunde onuraduna ez dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekuetako baten eraginpean, ez eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan aurreikusitako egoeretako batean ere (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena), eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuagatiko diskriminazio-jarduera edo -ekintza bat.

4. Halaber, erakunde onuradunari ez zaio zigor administratibo, laboral edo penalik ezarri sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik. Era berean, ez zaio zigor administratibo edo penalik ezarri LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik.

5. Erakunde onuradunari ez zaio zehapenik ezarri administrazio-ebazpen irmo baten bidez, arau-hauste oso astunengatik, Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako moduan eta epeetan.

6. Erakunde onuradunak laguntza hori onartzeak berekin dakar baimena ematea zuzenean egiaztatzeko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela, bai eta elkarreragingarritasun bidez erantzun daitezkeen gainerako datuak ere.

3. La entidad beneficiaria de la subvención no está incurso en ninguna de las prohibiciones para concurrir previstas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de mujeres y hombres, no concurre ninguna de las circunstancias previstas en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, ni el objeto de esta subvención constituye una actividad o acción discriminatoria por razón de sexo.

4. Así mismo, la entidad beneficiaria no ha sido sancionada administrativa, laboral o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad. Tampoco ha sido sancionada administrativa o penalmente por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

5. La entidad beneficiaria no ha sido sancionada por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.

6. La aceptación de esta ayuda por parte de la entidad beneficiaria implica su autorización de para la comprobación de manera directa del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y el resto de los datos que pueden ser atendidos mediante interoperabilidad.





Hirugarrena.- Indarraldia

1. Foru Dekretu hau onartzen den unean jarriko da indarrean, eta haren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatu arte iraungo du. Lau urteko epea aurreikusten da horretarako, dekretua formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

2. Foru Dekretu honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko epea, atzeraeraginezko izaerarekin, 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

3. Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa aurkezteko epea 2027ko ekainaren 30ean amaituko da. Justifikazioa Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztuko da, foru dekretu honen seigarren puntuari ezarritako baldintzetan, hargatik eragotzi gabe dekretu honen ondorioz erakunde onuradunari ezarritako betebeharrei buruzko araudi espezifikoak ezarritakoa.

Laugarrena.- Betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa hemeretzi mila eurokoa (19.000,00 €) da, hau da, baimendutako aurrekontu-kredituaren zenbateko osoa. Kreditu hori 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 0803.426106.45100 aurrekontu-partidaren kargura izendatuta dago (2017/0068 aurrekontu-proiektua, «Emakumeak buru dituen ekintzailatza»).

2. Zenbateko hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren gehienezko ekarpena izango da, eta garatu beharreko jardueretarako aurreikusitako zenbatekoaren jardunetan egon daiteken gehikuntzak inoiz ez du eragingo emandako zenbatekoa gehitzea.

Tercero.- Plazo de vigencia

